



dambolin

2023 abendua

255pk.



Zoroperiaren
aztarnen
peskizan





675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com

txoko
taberna

erdikalea 3
tel. 943 147 196



tel. 943 536 314

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070




Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

943 147 344 Iraeta- Zestoa

Egun osoan irekia		Irekia 18:00etatik aurrera		Itxia	
merenbero BEHOETXE					
UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA	
1 2 3	4 5 6 7 8 9 10	1 2 3 4 5 6 7	8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11	12 13 14 15 16 17 18
11 12 13 14 15 16 17	18 19 20 21 22 23 24	15 16 17 18 19 20 21	22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25	26 27 28 29 30
25 26 27 28 29 30 31	29 30 31				
IRAETA- ZESTOA					
URRIA		AZAROA		ABENDUA	
1 2	3 4 5 6 7 8 9	1 2 3 4 5 6	7 8 9 10 11 12 13	1 2 3 4	5 6 7 8 9 10 11
10 11 12 13 14 15 16	17 18 19 20 21 22 23	14 15 16 17 18 19 20	21 22 23 24 25 26 27	12 13 14 15 16 17 18	19 20 21 22 23 24 25
24 25 26 27 28 29 30	28 29 30			26 27 28 29 30 31	
31					



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia
M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



HARATEGIA
LOPENE
tel. 943 147 848 - 607 186 006



kutixi eta pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnor: 943148134
laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



Aranburu
Landetxea eta jatetxea
943 148 005



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761



ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69



Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!
Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Araneta
ERRETEGIA
626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

OROITZAPENA

70 ikasle izango ginen guztira, eta, beraz, bi orduz isilik egotea ez zen lantegi erraza izango. Orduko hartan, ordea, -gogoan ez dudan arren- leihoz kanpoko miken kantu-hotsa ere entzun zitekeela esango nuke.

Gerora jakin genuen irakaslearen azken laneguna zela, erretiratzear zela, alegia. Horregatik jardungo zen filosofo greziarrak nola alde batera eta bestera, lurrari begira, apunteen beharrik gabe, pasioz gainezka, Gasteizeko hotzarekin kontrastean. Literaturari buruz aritu zitzaigun, ikasgaiari zegokion moduan, eta irakurketaren garrantzia azpimarratuz amaitu zuela hitzaldia dut gogoan: "Irakurteza jarrera aktiboa izatea da, errealitatearen sekretuak zeureganatzeko ahalegin etengabea".

Oroimenean bueltaka ibili dudan oroitzapena bada ere, asteotan presenteago izan dut, eta Durangoko Azokara joan izanaren ondorio delakoan nago. Nire moduko zenbait *friki* liburu zerrenda buruan daramatela bertaratuko dira; beste batzuk, astearen hasierako erosketen zerrendaren atzeko aldean tituluak idatzita; eta, gehiengo, seguruenik, zer dagoen ikustera, ezer erosteko asmorik gabe. Alabaina, ez da gutxi egutegietan borobildutako eguna izatea euskaldunontzat; pozgarria da hainbeste jende ikusi izana aurtengoan ere.

Liburuotan zernahi aurkituko duzue: fantasiako munduak, urruneko paisaiak, ikuspegi kritikoak, iraganeko gazteluak, umorea... Bada, irakurketa ez da liburuetara mugatzen, zer esanik ez pantailetan hainbat mundu paralelo ditugun garaiotan.

Esku artean duzun alea da horren adibide. Danbolinek hurbilagoko kontuen berri emango dizu. Ferandok Zoroperien jatorriari buruzko azalpenak eskainiko dizkigu, izan ditzakegun zalantzetako zenbait argituz. Amaiur, berriz, Zestoa eta Urepele arteko senidetzeaz arituko da, lehenik Zestoa eta ondoren Urepelen eginiko senidetze ekitaldiei jarraika. Eta, amaitzeko, Jone Amillubiko proiektuaz arituko zaigu, zeinak interes handia piztu eta Azpeitiko azoka plazara jende andana erakarri duen. Abenduko egunotan, urtean zehar baino denbora gehixeago izan ohi dugu zenbaitek, eta ez da esku artean duzuen irakurtzeko aukera txarra, eguraldiak ere hala iradokitzen du.

Zerorrek erabaki ordu hilak –ordu hilik baldin badaukazu– igarotzeko modu egokia zein izan daitekeen; agian, esanekoa izan eta zerbait irakurriko duzu, edo baliteke telebistari begira egotea hautatzea. Hala ere, beste maisu batek, inoiz klaserik eman ez didan batek, Durangon erosi nuen liburu batean dio ez duela oso iritzi ona telebistaren inguruan, mundua erakutsi eta ezkutatzeko saioa dela, errealitatea ordezkatzen duen estereotipoen zerrenda.

aitor galegi



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazaillea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTE, URKO CANSECO, SARA MASCUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ICSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

Kolaborabazaitle/azuzenbaitle balden: NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, NEREA ODRIOZOLA, ETA ICSASO ZUBIRIA

Diseinua eta maketazioa: ENEKO ARISTE

Inprimategia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



Bidaiaren azken HELMUGA, ZESTOA

A zer sorpresa Mariam! a zer historia zurea, eta zer polita gure herrian hain gustura ikustea zeu! Halaber, zeinek esango zidan, elikagai biltegian irailean hasi, zuen harrera goxoa jaso eta ondoren zure enbidoa jasotzea a zer sorpresa jaso dudan!

Jada hilabete pasa da aurtengo kurtsoko lehen bilketa handia osatu genuenetik. Ordurako ezagutzen nituen elikagai biltegia lantaldeko kide gehienak, baina zuek ezagutzeko lehen aukera azaroko bilketa nagusian izan nuen. Hasiera batean, onartu behar dut, urduri xamar joan nintzela zuek ezagutzera, baina berehala lasaitu nintzen, egin zenidaten ongi etorri goxoari esker, ohartzeko pasa zitzaizkidan urduritasun guztiak,

eta oso egonaldi erosoan izan genuen elkarrekin kontu-kontari.

Dagoeneko, denoi egiten zaigu ohikoa herriko hainbat boluntario, Gesalaga kalean janari bilketan aritzea, baina askok ez dakite honen jatorria. Elikagai biltegia, "kuarentena" garaian hasi zen, garaiko krisi egoerari aurre egiteko asmoz, gizarteko talde kolpatuenei laguntzeko, baina jakinaren gainean geunden arazoa ez zela amaituko, eta horregatik gaur egun ere lanean jarraitzen dugu. Zestoa, Azpeitia eta Azkoitiko herrietan egiten dugu gure jarduera. Gure lana boluntario zein hartzaileen arteko elkarlanean oinarritzen da, non ahal duen bakoitzak bere aletxoa jartzen duen, eta ezin ahaztu bilketa bakoitzean hor zaudeten herritarrek ere!

Gaur egun, Urola Erdiko Kontseilu Sozialistaren baitan dago elikagai biltegia. Gure biltegi nagusia, Azpeitiko Esklabatako Zentro Sozialistan dugu, nahiz eta Zestoako gaztetxean ere izan dugun biltegi bat, baina, gaur egun gaztetxeak duen egoeran oso zaila egiten da gure jarduera bertan egitea, edozein momentutan hel daitekeelako kaleratzea.

Amaitzeko, nire enbidoa, herriko hainbat talde eragiletan ibiltzen den pertsona bati botako diot; lehen aipatu dudan bezala, gaztetxean biltegia ere izan dugu eta azkenengo honen inguruan asko dakien herritar bati botako diot: ea zer kontatzen digun Hiart Alberdik!

mikel olaizola rezabal

pintada. osasun arretoa EGOKI BATEAN ALDE. Denoi datorkigun egoera salatu nahi dizuet, Osakidetza, eta konkretuki Zestoako anbulatorioaren egoera. Gaur egun, sendagile bakarra dago, eta txanda egunean bertan bakarrik eman dezakete. Goizeko 8:00etan deitu eta dena beteta baldin badago hurrengo egunean berriro 8:00etan deitu beharko da.

Ez dakite egoera honek noiz arte iraungo duen, eta bertako langileak beldur dira bertan dagoen sendagilearen egoeraz, lan karga tarteko estresak jota dagoelako iritsi ezinda.

Gaur bertan izan naiz (hiru deiren ondoren, hiru egun eta gero) eta hau komentatu didate bertako langileek: Zestoako herriak 3.700 biztanle inguru ditu eta ez da normala sendagile bakarra egotea. Gainera etxetara bisitak ere berak egin behar ditu. Ez da egoera tenporala, Gabonak direla eta, ez. "Zer egin dezakegu?" galdetu diet, eta "Erreklamazioak jarri" erantzun didate, "baina ez bakar bat, baizik eta denok jarri beharko genukeela". Anbulatorioan bertan jaso behar dira erreklamazio paperak, eta bertan entregatu.

Animatu zaitzete!

iranzu urbieta



enbidoa

GOGOAN DUT

Ederra eta hunkigarria Maddi Alberdik azken Danbolinen proposaturiko ariketa. Momentu batean gazte sentitu arazi ninduen Zestoari loturiko hainbat oroitzapen elkarbanatzen genituela ikustean. Baina azkar aldatu zait sentipena neuk ere ariketa berdinari ekin diodanean:

Gogoan dut Porttu jatetxea (eta bertako kroketak) eta Agustinen Agustín egon ohi zela barra atzean (eta Romanaren tortilla) Herreroko “ba-

rrenitak” zuten arrakasta ere gogoan dut, baita Alkortaneko igandetako *raba* usaina ere. Gogoan dut Eugenioren



gozogintza fina, baina harro esan ohi nuen gure amama Xoleren moka Alkortanekoa baino goxoa-goia zela. Eta gogoan dut pastelez gainera etxean egindako izozkiak saltzen hasi zirenekoa. Gogoan dut Laranjadiko iturri berdea, bertako zuhaitzetan bakarrik jolas zitekeen *beisbolito* eta arkupetako *cruz bollo campanario*. Baita parke berria egin zutenean *lurrazka* eta frontoian *gambazka* jokatzera ere.

Gogoan dut orain Goxuri den tokian zegoen bole-
ra, botika zaharra eta Keperinek harategi barrura sartu eta ezkutuan oparitzen zidan gibela.

Gogoan dut Ken 7 lehen aldiz Lizarraitzeko zelaian entzun nuela AEK egun batean, eta Oskorri edo Kepa Junkera izan genituela plazan. Gogoan dut festetan ezkonduen eguna egon ohi zela, eta plazan karaoke herrikoa.

Gogoan ditut kanterako tiroak. Gogoan igandero okindegi ezberdin batean erosi behar zela ogia, eta Potxolo ireki baino askoz lehenago eros zitekeela egunkaria Pilarri oihu eginez.

Gogoan dut Enriketak goxokiak 5 xentimotik 6ra igo zituela eta Goxobol ireki zutenekoa. Juanitane-ko flashak eta kantineplorak, eta Miantxaneko *konjelito* morenitoak.

Gogoan dut andereño Kontxita jubilatzen eguna. Gogoan udaletxe atariko kristalezko kuboan arku-
petako eskailerak eta liburutegian internet jarri zutenean, liburu batean bilatzen genituela web orriak.

Jarrai nezake, baina zaharregi sentitzen hasia naiz dagoeneko. Ariketa polita da oroitzapenak ekarri eta nostalgiko jartzea, nostalgia aspaldiko momentu horietan zoriontsu izan garenaren adierazle baita.

EZ DU ETENIK. Aurtengo urtea ere ari da amaierara

heltzen. Berriz ere iritsi da abendua, zutabea idazteko ordua. Zeinen azkar, ezta? Badatoz Gabonak, familiarekin elkartzeko egunak, une politak... Urtean zehar izaten dira horretarako egunak, baina Gabonak bereziak dira denontzat, giro goxo ederrean aspaldi egon gabeko izeba eta lehengusuekin elkartzen

gara eta. Gabonek badute gurean berezitasunik ere, izaten dira hango opari eta txikientzat gustagarri diren hainbat detaile, hemengo afari eta janari preziatu. Jarri al gara pentsatzen denek ez dituztela gurean bezalako abantailak izango opariak



erosteko edo opariak jasotzeko? Gabon egun horiek ospatzeko, turroi goxoz lagunduta?

Gaur, oso entzuna dugun Gazari begira jartzen bagara, hor ikus daiteke adibide garbiena. Zenbat irudi tamalgarri, eta irudi horien atzean familia askoren atsekabeak. Milaka ume hilik, beste hainbeste senitarteko, baina gerrak ez du etenik. Eta zeinen gutxi hitz egiten den gurean horri buruz, ezta?

Nire inguruan, behintzat, telebistan ikusten dugunean hitz egiten dugu horri buruz. Gainontzean jartzen naiz ingurura begira eta ohartzen naiz zein ondo bizi garen eta zeinen “gaizki ohituta” gauden. Dena dugu eskura: hori nahi dugula? Horixe! Bestea behar dugula? Baita ere!

Orain dela aste batzuk, Tolosara joan nintzen. Gazte palestinar bat bizikletan zebilen, bizkarrean Palestinako bandera handi bat harturik. Bizikletan megafonia bat zeraman, eta hara non entzun nuen Joseba Sarrionandiak eginiko letrarekin Mikel Laboak abestu ohi zuen abestia: *Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak*. Halako zirrara bat sortu zidan gorputzean, eta malkoari ezin eutsita egon nintzen. Zeinen injustua, ezta? Beharbada, bere familia osoa gerran egongo da, edo, are gehiago, beharbada familia-ko kideren bat balduta. Besarkada handi bat bidali nahi nioke gazte tolosarrari, baita gerra honekin sufritzen ari den orori ere (nahiz eta ez duen askorako balioko). Lerro hauen bitartez, barruan sortu zitzaidan korapiloa azalarazi nahiko nuke; ea saiatzen garen autokritikatxo bat egiten besteen azalean jarritz.

jagoba astiazaran

amaia agirre

BAKÖITZA BERE ZORÖAK BIZI DU

EZ GARA ADOS
JARRIKO ABENDUAREN
26KO FESTAREN
JATORRIAZ, ORAINDIK
ETA NEKEZAGO EGUN
HORREN IZENA Z,
BAINA FESTA BEREZIA
IZATEN DELA
AITORTZEKO EZ DAGO
EZTABAIDARIK. GERO
ALETUKO DUGUN
KRONIKA BATEK ZIOEN
BEZALA, JENDETZA,
GIRO EZIN HOBEA,
TXIKITEO JENDETSUA
ETA TABERNA GUZTIAK
OSO ANIMATUTA,
BABA-JANA, BERTSOAK
ETA KANTUAK
ETENGABE,
DANTZATZEKO ETA
ERROMERIAN SALTOKA
IBILTZEKO GRINA, ETA
GAUARI BIDE
EMANDAKOAN ZER, ETA
"HERRIKO ONENAK"
FESTAREN JABE.
ZOROPERIA, MITO
KUTSUA DUEN EGUNA.

Zaila da, oso, abenduaren 26ko egun horren jatorria bilatzea, are eta zailagoa Zoroperi izena nondik datorren erabakitzea (Iñaki Segurola zenak, 2009ko abenduaren 21eko *Hitzan*, argi asko utzi zuen Zoroperia zela, eta ez Soroperia). Teoria interesgarrienaren berri Luis Miel Ugarte *Zunzunek* eman zuen, duela hogeitau urte eskas. Haren iritziz, eta Rafael Castellano, Harvey Cox eta Anes Arrindaren ikerketetan oinarrituta, Zoroen Jaiekin dauka zerikusia gure festak. Arrindak, nonbait, zoroen jai horiekin parekatzen du Debako Zoro Peri eguna. Dirudienez, zoroen jai haiek jai paganoak ziren, balio ortodoxo guztiak hankaz gora jartzen zituztenak, eta indar handia izan zuten, harik eta Elizak zapuztu



zituen arte XVII. mende aldera. Teoria interesgarria, inolako zalantzarik gabe, eta Zunzunek zioen bezala, beharbada Zestoan oraindik ere irauten du zoroen jai horrek: “Zoro peri egunean zorakeriak libre; ondo pasatzeko, jakina!”.

Agiriak mutu daude, ordea, eta XIX. eta XX. mendeetan - Franco hil arte behintzat bai - ageri zaigun abenduaren 26aren irudia nahiko tradizionala da, baserri giroarekin eta feria egunarekin lotua. XVIII. mende amaieran, udalak komenigarritzat jo zuen herrian feria egitea hileko azken ostegunean, mota guztietako ganadu, ale, hegazti, fruitu eta gainerako gaien salmentarako: “Inguruko guztientzat onuragarri izango litzateke, ez baita egiten lau legoako barrutian ale-azoka bat bera ere, eta kostaldeko herri gehienek ez dute mota horretako nahiko genero”. Hala, 1777. urtean baimena eman zitzaion Zestoako herriari hileroko feria antolatzeko. Feria hori ote Zoroperiaren jatorria? Gure paper zaharrek txintik ere ez: ez dago feriaren aipamenik, are gutxiago festa paganoenik.

Saia gaitezke, hala ere, duela mende bateko edo mende eta erdiko giro hura irudikatzen argazkiei, paperei, inguruko lekukoei entzundakoei eta geuk umetan bizi izandakoari erreparatuz.


FERIA, ZOROPERIAREN SORBURUA?

Nolakoa zen duela mende bat urte amaieran egiten zen feria hura? Mota guztietako animaliak jarriko ziren salgai plaza nagusian: behiak, zaldiak, ardiak, ahuntzak, hegaztiak... Inguruko kaleetan, nekazaritza eta abarren azoka egingo zen: barazkiak, aleak, baserriko erremintak, zuhaitz landareak... Kaleak gainezka Zestoako eta inguruko jendez, gaur egun herriko jaietan ikusten dugun bezala. Egun handia, dudarik gabe, eta egun osorako etorriko zen jendea: erosketak egin, hamaikakakoa, bazkaria, afaldu... eta gero gerokoak. Ez zen faltako, erromeria handietan ohi zen bezala, talo posturik, erroskilla saltzailerik, errifarik... ezta hura girotzeko txistularirik, trikitilaririk edo bertsolaririk ere. Tabernak, lehertu beharrean. Uztapekek bertso paperak aipatuta esan zuen bezala, “Ango jendearen emana! (...) Hasi zen kantatzen tabernan, ta bazuan zeñek eresia. Ango tira bearra ta ango bultza bearra!”.

LEHEN AIPAMENAK

1920-30eko hamarraldietan gizartea izugarri aldatu zen, eta herritarrek lehengo aldean protagonismo handia hartu zuten herriko kultur, aisialdi eta eguneroko bizitzan. Abenduaren 26ko ekitaldietan ere aldaketak zetozen. Ohiko feriaz aparte, kirol ekitaldiak antolatzen hasi ziren herritarrek. 1931ko abenduan, zenbaitek - Jose Olaizola, Santiago Sagarzazu, Antonio Iriondo - baimena eskatzen diote udalari 26an edo 27an idi probak antolatzeko; era berean, laguntza eskatzen dute udalak bere gain har dezan plaza ixtea.

Askoz esanguratsuagoa da Anastasio Alkortaren beste eskaera hau (1933-12-09): “Frontoia ixtea, aulkiak eta abar eskatu zituen, hil honetako hogeita seian pilota partida on bat egiteko, ganadu feria ospetsua [egiten den egunean], eta bera arduratuko da partida hori antolatzeaz”. Udalbatzak - nola



ez, bere anaia Eugenio zen alkate-eta - bere adostasuna adierazi zuen. Hurrengo urtean, Anastasio Alkorta alkateorde zenez, Juan Artanok egin zuen eskaera, eta frontoia ixtea eta aulkiak eskatu zituen hark ere, hilaren hogeita seian partida bat eskaintzeko. (1934-12-05). Horrela bada, abenduaren 26aren egitura garbi antzean irudika dezakegu urte haietan: goizeko ganadu feria, era zaharrean, txistulari, bertsolari, (trikitilari?) eta abarrekin, eta arratsaldean pilota partidak eta musika. Hortik aurrerakoa, alegia, *Zunzunek* zioena, “Zoro peri egunean zorakeriak libre; ondo pasatzeko, jakina!” paperek ez dute jasotzen baina izan, izango zela ez dago dudarik.

KOIOTE

Gizartearen dinamismo horren adierazgarri, garai hartan - 1933an, hain zuzen - ireki zen hamarkadaz hamarkada herriko erreferente bat izango zen establezimendua: Koiote. Abenduaren 23an aztertu zen gaia Udalbatzan: “Manuel Izeta jaunaren eskaera bat irakurri zen, Foru Plazan, La Gloria taberna egon zen lokal berean, edari-establezimendu bat irekitzeko lizentzia eskatuz. Udalbatzak, eskaerarekin batera lokalak dituen higiene- eta osasun-baldintza onei buruzko ziurtagiri fakultatiboa aurkeztu zuela kontuan hartuta, lokala irekitzeko baimena ematea erabaki zuen gaurtik aurrera, hala eskatzen baitu”. Pixka bat geroagokoa da slogan ospetsu hura: “Ni tiros ni enmascarados. El Coyote es el bar de los licores esmerados. Plaza de España. Cestona”.

GERRA ETA FRANKISMOA

1936ko altxamendu militarren ondoren, etenaldia izan zuen herriko kultur bizitzak, eta horren adierazle da, esate baterako, Juan Artanok egiten zuen eskaera, frankistek udala bereganatu eta gero: udan berak hartu zuen frontoia errentan, baina diru askorik bildu ez, eta errenta ordaintzetik salbuesteko eskatu zion udalari. Nolanahi ere, behin karlistek herria menderatzea lortu zutenean, erabateko normaltasunaren irudia transmititu nahi izan zuten, eta pentsatzekoa da, 1936ko abenduaren 26an festarik egin ez bazen ere, berehala bueltatuko zirela jai girora. Jakina, ez zuen errepublika garaiko askatasun hura izango; ikuskizunek ez zuten batere abertzale-usainik izan beharko, ikurrina zeharo debekatua zegoen, moral zorrotza eta ohitura katolikoak nagusituko ziren, kaleko portaera-eta oso zaindua ordu txikietan... Aurreneko aldaketa izena bera izan zen: errepublika garaiko “abenduaren 26ko feria” izendapen aseptiko eta akonfesionala, Pazko Feria Handia, Gabonetako Feria... bihurtu zen frankismo garaian, erlijio-egutegia nagusi. 1950eko hamarkada erditik aurrera, “bigarren frankismoa” deitzen den garai haietan, indarra hartuko du berriz kale giroak, masa-kontsumo itxuran, alegia kezka politiko eta intelektual gutxirekin, baina arrakasta eta zabalkunde



handiarekin, entretenimendua eta ihesbidea hartuta helburu. Kirolak izan zuen batez ere arrakasta: pilotariak, harri-jasotzaileak, aizkolariak... Nolabaiteko irudi erregionalista bat transmititzen zen, non Espainia langile, indartsu, fededun eta maskulinoa aldarrikatzen zen. Abenduaren 26ko "Pazko FERIA Handi" haren diseinua ez zen aurreko garaien oso desberdina: "Erromerian oinarritutako egitaraua plazan eta udaletxeko arkupetan, baita harri-jasotze apustu handia ere" (J. L. Arrizabalaga, 1954-12-24); "Pasa den igande arratsaldean, Zestoako Sastarrain eta Azpeitiko Etxetxoren arteko harri-jasotze apustua izan zen Gurutzeaga pilotalekuan. (...) Ondoren, Nafarroa plazan, arkupetan eta frontoian, hiru orkestina aritu ziren, eta dantzariak jendetza handia bildu zuten kanpotar ugari etorri zelako" (Idem. 1954-12-28). Hurrengo urtean, berriz, harri-jasotzaileen orde, Basarri eta Uztapide izan ziren. Handik urte batzuetara ere, "San Esteban eguneko erromeriak" oso jendetsua izaten jarraitu zuen. Bistakoa den bezala, ez zen politikoki zuzena zoroak edo Zoroperia aipatzea, eta ezin jakin herritar soilek zer izen erabiltzen ote zuten abenduaren 26ko jaieguna izendatzeko.

ZOROEN FERIA

Frankismoaren amaierarekin haize berriak datoz Zestoara ere, eta historian lehen aldiz irakur daiteke "Zoroperi" izena paperetan. 1983ko abenduaren 27an gaude. *La Voz de Euskadi*, egunkari efimeroa (1983-1985), eta berri-emaile aparta: Shanti Sagarzazu. Zaila da hark bezain ondo eta bizi kontatzea zer zen Zoroperia garai hartan, eta, beraz, hark gaztelaniaz idatzitakoa guk euskarara pasatzea, ez dugu beste lanik hartu: "Goizean goizetik eta eguraldi bikainarekin, jendea biltzen joan zen apurka-apurka Zestoako Udalak,

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, antolatutako ganadu lehiaketara. Zestoako plazak itxura ikaragarria zuen. Batetik,azienda guztia, eta, bestetik, egun horretan herrira jaitsi ohi den jendea. Eguerdia aldera herriko musika bandak kalejira egin zuen herriko kaleetan barrena, eta ondoren, jende guztiaren aurrean, Gabonetako gaiekin gozatu genuen. (...). Taldearen emanaldia amaitu ondoren, sariak banatu ziren (...). Kalejirarekin amaitu zen sari banaketa, eta Tapia eta Javier trikitilariak alaitu zituzten herriko kaleak. Txikiteoa jendetsua izan zen eta taberna guztiak oso animatuta egon ziren".

"Ohiko bazkaria. Egun horretan eta Lau Iturri elkartean, ohiko babarrun jana ospatzen da, hainbat kuadrilla biltzen dituen; giro aparta izaten da, eta bertsoak eta kantuak etengabekoak dira. Arratsaldean, berriz, giro ikaragarriarekin, goizean baino jende gehiago bildu zen. Dantzatzeko eta erromerian saltoka ibiltzeko gogoia etengabea izan zen. Eguna amaitu ahala, gauari bide emanaz, giroa familiarra bihurtu zen eta 'herriko onenak' geratu ziren". Ez dago hobeto deskribatzerik.

BERRIKUNTZAK

Zoroperiaren goizeko zatiaren osagai nagusia Ganadu Lehiaketa izan zen urte askotan. 1980ko hamarkada arte, bi urtetik behin egiten zen gutxienez. 1984an, ordea, aldaketak egin zituen Foru Aldundiak, eta lau urtean behin egitera pasa zen eskualde mailako ganadu lehiaketa hura. Horrela bada, 1986etik aurrera, Barazki, Fruta eta Lore Lehiaketa tartekatzea erabaki zuen udalak. Sortzaile eta sustatzaileen artean, herritar bat baino gehiago izan ziren, baina aipamen berezia merezi du garai hartan baserri saileko zinegotzi eta hurrengo urtean sail bereko batzordeburu izango zen Manuel Odriozola *Arretxek*. Baserri mundua ondo baino hobeto ezagutzen zuen pertsona zen hura, bertako produktuen alde beti, eta Urola inguruko eta, batez ere, Errezil aldeko hainbat ekoizle inplikatzeko lortu zuen eta azokari itxura paregabea eman zitzaion. Gure datuak oker ez badaude, Odriozola bera izan zen Urolako Ezti Lehiaketaren sustatzaile garrantzitsuenetako bat ere (1997).

Azkenik, 1999an, Herriko Sagardo eta Gazta Lehiaketak gehitu zitzaizkion Barazki eta Frutari eta Urolako Ezti Lehiaketari, eta hala iraun du ia gaur arte. Lehiaketa horiek elikadurarekin edo artisautzarekin lotutako salmenta-postuekin osatzen dira azken urteotan. Umeek, berriz, beraiantzako emanaldia izan ohi dute bazkalondoan. Sagarzazuk 1983ko kronikan aipatzen duen baba jana, berriz, soziedade, taberna eta txoko ugaritara zabaldu da. Arratsaldeko ikuskizunei dagokionez, pilota partidek garrantzia handia izan dute (2001, 2002, 2004...) eta gero kirol ikuskizun mistoetara pasa zen: pilota, harri-jasotzea, bertsolariak, trikitilariak, soka-tira, aizkolariak... (2005, 2006, 2007...). Esaldi batean laburbiltzeko, beraz, Luis Miel Ugarte *Zunzunek* zioena: "Zoro peri egunean zorakeriak libre; ondo pasatzeko, jakina!".


Fernando arzallus

IRAGOTIA



Gure etxera bizi osoan Erregeak etorri izan dira, baina orain ilobak direla eta Olentzero ere hasi da etortzen

berdaitz landa
34 urte



Gure etxera Olentzero etortzen da eta gurasoen etxera Erregeak joaten dira.

xole altolagirre
36 urte



Orain artean ez diogu inori eskatu, baina hemendik aurrera, txikiarekin ba... hasi beharko dugu Olentzerori karta idazten


irati godoy
28 urte



Txikiak ginenean Erregeak beti. Orain, etortzen denean, Olentzero.

jose luis olazabal
65 urte

zuen etxera nor etortzen da Olentzero edo Erregeak?



(Erantzuleak guztira: 92)

- Olentzero eta Hiru Erregeak
- Olentzero
- Inor ez
- Hiru Erregeak



Aizarnako kalean tarteka harlauzak solte eta oso arriskutsu daude



Arroagoiko iturri ingurua garbitu dute



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portalea kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Taxi Zestoa



9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906



Fisioterapia
Osteopatia

943 29 08 99

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

Gosalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicadental@gmail.com
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

2024

MARTXO

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirata	larumbata
26	27	28	29	01	02
03	04	05	06	07	08
09	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26
27	28	29	30		

APIRI

astelehena	asteartea
01	02
03	04
05	06
07	08
09	10
11	12
13	14
15	16
17	18
19	20
21	22
23	24
25	26
27	28
29	30

EGUTEGIAR 2024

SALGAÍ PÖTKÖLÖ, LAIAK ETA PÖRTALEN 10 EURO



aek

*Ur goiena, ur barrena.
Gogoz hartuko dugu
hogeita lauak dakarrena.*



UREPELE ETA ZESTOA

EZKONDU DIRA HERRIAK!

"HERRIA DA GORPUTZA, HIZKUNTZA BIHOTZA"; ABESTU ZUEN XALBADORREK. GUK ERE EZIN BA BEREIZI EZ HERRIA, EZ HIZKUNTZA, EZ GORPUTZA ETA EZ BIHOTZA. ASPALDI-TIK, XALBADORREK ETA UZTAPIDEK BIHOTZEZ BATU ZITUZTEN BI HERRIAK, UREPELE ETA ZESTOA. ORDUAN HASITAKO SOKARI HELDU ETA LUZATZEN ETA KORAPILATZEN JARRAITZEKO ASMOTAN GABILTZA ORAIN. BI HERRIEN ARTEKO LOTURA HITZARTU DUGU PAPE-REAN, UREPELEKO ETA ZESTOAKO BERTSOLARI HANDIEN HITZAK GOGORATU ETA KANTATU DITUGU ETA EGUNGO BERTSOLARIEK BOTA DITUZTE BERRIAK. ETA BI HERRIEN ARTEKO LOTURA PLAZAN GORPUZTU DUGU, ESKUZ ESKU ZESTOARRAK ETA UREPELDARRAK ELKARREKIN SOKAN. "ADISKIDEEK BATU DUTENA EZ BEZA MUGAK BANATU"

Fernando Aire Etxart *Xalbador* (Urepele, 1920 - 1976) eta Manuel Olaizola Urbietta *Uztapide* (Zestoa, 1909 - Oiartzun, 1983) bertsolarien laguntasunaren sokari jarraika bien jaioterriak senidetu dira. Azaroaren 18an egin da lehen ekitaldi ofiziala Zestoa, eta azaroaren 26an bigarrena Urepelen.

Duela hiru bat urtekoa da Zestoa eta Urepele herriak senidetzearen ideia. Bi herrietako alkate eta auzapezaren arteko telefono deia aurrena, herritar batzuen bisita Urepelera ondoren, Agiro taldearen Ezkaba-Urepele mendi ibilaldia segidan... Pixkanaka, lehen kontaktuak egin eta bi herriak hurbiltzen hasiak ziren etorkizuneko elkartzeari begira. Bi herrien arteko ekimenak buruan, Zestoako Udalak senidetze-proiektua aurkeztu zuen Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak sortutako "Ideiak 2023" partaidetza bidezko dirulaguntza deialdira. Gipuzkoako 32 proiektu bozkatuenen artean sailkatuta 20.000 euroko diru laguntza jaso du. Beraz, bestela ere buruan geneukan ideia, orain bai ala bai formalizatu beharra dugu. Ez dago atzera buletarik, bultzadatxo ekonomiko eta guzti, bagoaz alderera.

UREPELDARRAK ZESTOARA (AZAROAK 18)

Eguerdiko 11:30erako egin dugu zita urepeldarrekin, 12:00etarako deitu dugun ekitaldirako zenbait kontu lotzeko asmoz. Baina eguerdiko kanpaiak jotzen hasi dira eta urepeldarren arrastorik ez. Ene ba... ez ziren ba damutuko? Herri guztiaren aurrean kalabazak jasoko ote dituenaren beldurrez alderean zain-zain dagoen ezkongaiaren pare jarri gara. Mezua bidali diegu bidean ea dena ongi den galdezka, eta segituan erantzun dute: "Hor gira". Udaltxeko balkoira irten gara eta badatoz, Eztiola kaleetik eta harresi-arkua zeharkatu berri dute. Jaitsi gara eta udaletxeko arkupeetan agurtu ditugu. Aretota hurbildutako herritarrei pixka bat goian itxoiteko esan diegu eta behean adostu eta "entseatu" ditugu ekitaldiaren nondik norakoak. Garikoitz Mendizabalek jotako Alkate Soinuarekin sartu dira Mikel Arregi alkatea eta Xole Aire Urepeleko auzapeza pleno aretora. Eta anfritioiak hartu du hitza. Bi herrien arteko ezberdintasunak nabariak direla ikusten du Arregik, baina horietatik ikasi eta komunean ditugunak nabarmendu ditu:



1. Amets Arzallus bertsotan Urepeleko senidetze ekitaldian
2. Dantza-korda Urepelen, Xole Aire aurreku dela
3. Zestoarrak eta urepeldarrak Zestean
4. Urepeleko Koxenea jatetxean bazkaltzen urepeldarrak eta zestoarrak
5. Gorka Olaizola eta Aitor Salegi bertsotan Zestoako senidetze ekitaldian
6. Zestoako senidetze ekitaldiko dantzaurrea. Desafioaren ondoren dantzariak lore sortak trukutzen

“Herri txiki bat gara, hizkuntza bat, nortasun partekatua daukagu, garai hauetan arriskuak ere baditugu, eta guri arbasoek utzitako hori zaintzea tokatzen zaigu. Eta iruditzen zaigu senidetze honek horretan lagunduko gaituela”.

Airek onartu du proposamena jasozuenean beldurtu zela, baina behin Zestoa eta zestoarrak ezagututa alde egin zaizkiela zantzak: “Aitortzen dautzut Mikel, lehen aldiaren deitu ninduzunean senidetze proiektuaren proposatzeko holako herri gotoretik, gure herri ttipia oino ttipiagoa iduritu zitzaidala. Handiak ttipia behar duela handi izaiteko pentsatu nuen. Gero, zuen herrian bisitan izan gienean, ongi ulertu dugu ttipi handi konturik ez dela hemen. Zestoa bisitatu dugularik, zuen herriaren sinpletasuna eta xumetasuna ikusi ditugu, auzotan banatua, aunitz Urepele ttipi balira bezala”. Segidan, hitzarmenaren puntuak irakurri eta sinatu egin dute herrien arteko lotura. Inork kontrarik esan ez duenez, aurrera doa senidetzea!

Eta ezin ba ekitaldi honetan bertsoarik falta. Gorka Olaizola eta Aitor Salegik astindu dute mikroa.

Urte asko dira gure bi herriak alkar anaitu zirela, Zuen Xalbadorrek, gure Uztapidek nahi izan zuten horrela. Irudikatu ditzaket biak soinean euskal txapela. Seguru nago dauden tokian irripar batez daudela.

Sortzen den orok izaten ditu erantzukizun eta ardurak, hamaika mundu badenez gero gurea bada buru bat. Ikusiko da ba ote duen ea bat etortzerik kulturak, ezabatzea lehen politikak ezarri dituen mugak.

Bertsolaritzaz harago ere gauza bat esan nahi det nik, izan ere hemen ez baita falta bazter ta txoko goxorik. Hona iritsi ta zuek lasai urepeldarrak izanik, beti izango dituzue hemen ate guztiak zabalik.

Ta nola sartu erakusteko bada nahikoa adiskide, bada nahikoa ate zabalik eta bada nahiko bide. Lehen esan gisan jauzirik jauzi Xalbador t Uztapide, gauza ederra izango da ba kantuz aritzea libre.

Jarraian, Uztapideren eta Xalbadorren arteko adiskidetasun berezia nabarmentzen den bertso sorta etorri da. 1961an Alduden abestuek. Aizpea Aristiren ahotsean Uztapiderenak eta Klod Errekarenean Xalbadorrenak. Xalegi eta Olaizolak mikroari gustua hartu diote eta azken bertsoaldira animatu dira:

Bateko firma besteko bertsoak ta bertso osteko kantak Sinesgarritasunik ba ahal du gure bertsolari plantak? Mihiak dantzan aritu dira lehen hala ziren zaratak, dirudienez oin dantzariak mugitukoituzte hankak.

Umorera joz jarri natzaio zuen izenai begirako. Gure artean antzekotasun gehiago ere badira, zuek ur epel, guk bainutxe bat daukagu bestalde, tira. Ura hotza dago batzutan, baina kontrasteak onak dira.

Barruko ekitaldiak amaituta, plazan simbolizatu da bi herrien batura; soka-dantzan errematatu dituzte urepeldarrek eta zestoarrek hitzarmenean idatzitako puntuak. Bi alkateak plazaratu dira aurreku eta atzesku, Nafarroa Behereko dantza-kordetan ohikoa den moduan, bakoitzak lore sorta bat duela eskuan. Norbere herrian jasotako zuhaitz eta landareekin osatua. Urepeleko eta Zestoako dantzariak antrexantak dantzatu



1. Mikel Arregi eta Xole Aire Zestoako senidetze ekitaldian
2. Urepeldarrak eta zestoarrak Urepelen
3. Daniel Aire eta Aizpea Aristi Uztapideren eta Xalbadorren Aldudeko bertsoak kantatzen

▶ dituzte desafio gisan eta lore sortak truka-tu dituzte amaitzean. Protokolo ofizialak akabatu eta mahai bueltako akziora pasa gara. Uztapideren jaiolekura hurbildu nahi izan dugu: Endoiara. Tertulia emankor eta goxoan jan dugu, baina ordulariari begira sumatu ditugu urepeldarrak. Motz geratu zaigu sobremesa, penaz alde egin dute. Izan ere, baserritik bizi dira gehienak. Txerri, ardi eta behiak ez dira bakarrik gobernatzeko. Baina, agurra, “datoarren astera arte!” izan da. Ijitoen ezteien parkeoa gure elkartze ekitaldia.

ZESTOARRAK UREPELERA (AZAROAK 26)

25 bat zestoar iritsi gara Urepelera 11:00 alderako. Auzapezari idatzi diegu bertan garelako abisatzeko eta segituan erantzuna: “Gu zuen bea Herriko Etxean!”. Hara gerturatu gara eta zain ditugu hainbat urepeldar, agurtu eta lehen solasetan hasi gara. Hotza zen iragarrita, baina eguzkia atera da eta denbora bezain giro goxoa sortu da. Itxoin, aizarnarrak ere agertu dira! Goizean kasualitatez topo egin aizarnar batekin Baigorriin. Urepelen zer asmotan ginen esan diegu eta seguruenik agertuko direla beraiek ere. Esan eta egin. Zestoan bezalaxe, alkateen hitzek ireki dute ekitaldia. Baina hara! Hiru hankako zakur bat hurbildu da bien artera. Ezkur da, Xoleren txakurra. Ezkontzetako estanpara gerturatu nahian, aita-ama pontekoaren papera hartu nahi ote du? Mikelek lehena gotik ezagutzen duela dio: “Iaz mendi buelta baten aitzakian Xalbadorrenetik pasa nintzen eta ia Izterbegiraino zaunkaz atzetik eramane nuen. Bistan da gaur askoz hobeto hartu nauela”. Bale gara, zakurrak elkartzea ontzat eman du. XX. mendeko bi bertsolari handik batu ditu

bi herriak, eta egungo beste handi batek, Amets Arzallusek, jarri dizkio bertsoak batzeari:

Gaur hurbilago ikus liteke Zestoa Urepeletik, bai Zestoatik Urepel ere begia han jar baleki. Maitasun baten haurrak zarete bakoitza zuen aldetik. Ta Uztapide eta Xalbador bi kuadro hauen barnetik, begira pozik egongo dira aldamioen gainetik.

Noizbait norbaitek gure gainetik jarri baitzuen indarra. Ez ziren beren gogoz bereixi Hegoa eta Iparra. Ta Xalbadorrek zion bezala bera zela orotarra. Uztarri hontan guziek dugu burua lotu beharra berriro noizbait gorpuztu dadin Euskal Herri bat bakarra (bis)

Eta jarraian, berriz ekarri ditugu gogora Aldudeko bertsoak. Oraingoan, Daniel Airek, Xalbadorren semeak jarri die ahotsa aitaren bertsoei. Zestoan egin genuen antzera, bertsolarien gisan, kasik bat-batean gabiltza denok, baina lasai, inprobisazioaren naturaltasun horretan baitago askotan xarma. Danielek ere hala esan du mikrofonotik: “Ohartu zizte, hemen egin dugula errepetizioa eta kantaldia biak batera?”

Bukatzeko, dantza-korda plazaratu dugu. Oraingoan, Baigorriko musikarien laguntzaz. Lore sortak tru-

katu, eta azkenik, zubia egin dugu eta sokaren gidaritza trukatu da. Soka buru jarri orduko gure alkate jaunak ezuste txiki bat ere izan du, zapata atera ez zaio ba! Baina azken aldian dantzarako abileziak hobetzen ari dela erakusten ari da, eta oraingoan ere zapatila arrastan duela dotore antzera salbatu da estutasunetik. Soka plazatik irten eta horrela bukatzea zen asmoa; eta hala atera gara, baina musikariek ea fandango eta arin-arinik ez al dugun dantzatu behar galdetu digute, hala bukatu ohi dira soka-dantza gehienak. Gehiengoak burua makurtu du, sueltotan dantzatzera ohitu gabeak nonbait. Baina, hara! Batzuk bai, musika entzun eta batzuk ezin geldirik gelditu, bada bi herrietako ordezkartitza sueltorako ere! Hitzartze, sinatze, bertso eta dantza bidez eman ditugu lehen pausuak, eta adiskidetzaren hasiera, nola bestela, banketerekin borobildu dugu. Argi dugu benetako harremanak non eta noiz hasi diren! Erlazioak fruitu asko ekarriko dituen itxaropenez, Gora ezkon-herriak!

amalur aristi arregi

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015

Fakri Okawa
943 148 428

unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairi
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif. 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

karmele
943 147 832

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Amillubi: ilusioa eta etorkizuna Iraetan

LURRA ONDASUN KOLEKTIBO BILAKATZEKO HELBURUAREKIN 'AMILLUBI LURRA TAUPAKA' PROIEKTUA MARTXAN DA. BIOLUR ELKARTEAK SUSTATZEN DU EGITASMOA ETA IRAETAKO AMILIBIA BASERRIA ETA BERE LURRAK MODU KOLEKTIBOAN EROSTEA DA EPE MOTZERAKO DUTEN ERRONKA, "HERRITARREK ELIKAGAIK ETA NEKAZARIEK LURRAK IZAN DITZATEN ELIKADURA SISTEMA INDARTZEKO" .

ILUSIOA, EMOZIOA ETA URDURITASUNA USAINTZEN ZIREN ABENDUAREN LEAN AZPEITIKO AZOKA PLAZAKO AURKEZPENEAN. BI URTE INGURU ZERAMATZATEN EGITASMOA LANTZEN ETA BILDUTAKO JENDE KOPURUAK BABESA ADIERAZTEN ZUEN. AURKEZPEN LANAK ANE ARANBURU ETA LIDE JIMENEZ AIZARNARREK ETA MIRENE BEGIRISTAIN BIOLURKIDEAK EGIN ZITUZTEN.



argazkia: Dani Blanco/ARGIA-CC-BY-SA

AZPEITIKO EKITALDIAREN AURRETIK, PROIEKTUARI LAGUNTZA ESKAINI DIOTEN ERAGILEEK ARGAZKIA ATERA ZUTEN AMILIBIAKO LURRETAN. HAN IZAN ZEN MIKEL ARREGI ALKATEA, BAITA DANBOLIN ERE, EGITASMOA BABESTEKO ASMOZ.



Amillubi proiektua Biolur elkarteak sustatzen du. Biolur 1993an sortu zen Gipuzkoan. Herritar eta ekoizleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarte da eta bere xede nagusia dira, elkarlanean eta lankidetzaz ezberdinak eraikiz, nekazaritza eta abeltzaintza agroekologiko eta iraunkorraren bidez gure luraren epe luzeko emankortasuna bermatzea, jendartearentzako elikagai osasuntsuak sortzea eta landa inguru eta herri biziak eta duinak sustatzea.

Urte hauetan landutako lankidetzaz bideari esker, Amillubiko Talde Eragilea sortu dute. Bertan parte hartzen dute zenabit herritar eta eragilek bezala, Biolurreko kide diren hainbat baserritar eta ekoizleek ere. Talde eragile honek Amilibia baserriaren inguruan garatuko diren proiektu agroekologikoak zehaztu, ibilbide sozioekonomikoa jorratu eta arlo komunikatiboa lantzen ditu. Amilibia bost hektarea baso, lau hektarea belardi natural eta nekazaritzarako lur sailez osatzen da. Balio agroekologiko handiko eremu zabal honek bertako herritarrentzat elikagaiak sortzeko eta babesteko aukera eskaintzen du. Elikadura burujabetzarako bidean lurarekin errespetuzkoak diren laborantza proiektuak martxan jartzekotan dira bertan. Formazioa eta nekazarien arteko saretzea sustatuko dituzte, eta nekazari berri gehiagoren bidelagun izatea ere aurreikusten dute. ➤

PROIEKTUAREN
HELURU NAGUSIA
AMILIBIA
BASERRIA ETA
BERE LURRAK
ONDASUN
KOLEKTIBO
BILAKATZEA DA



AITOR OSSA

Arroabeko Txara, Goiener, Argiola eta antzeko proiektuetan ibilia zara, orain Amillubi dugu herrian. Zer ikusten diozu proiektuari? Gauzak egiteko "beste modu bat" dagoela sinisten dut eta

"GAUZAK EGITEKO
"BESTE MODU BAT"
DAGOELA SINISTEN DUT"

Amillubin argi ikusten dut proiektuaren asmo nagusia ez dela negoziarioa egitea edo irabazi ekonomikoak lortzea inoren poltsikorako, baizik eta gizarte osoarentzako nahiz ingurumenerako onurak izatea. Bizi dugun egoeran horrelako gauzei arreta handia jarri behar zaie, eta proiektu berriak zein asmekin sortzen diren aztertu. Amillubi elikadura burujabetzara bidean jarriko gaituen proiektua da; tokian tokiko ekoizpena sustatzen du, bertan bertako produktuak edukitzea eta ekoizleak baldintza duinetan izatea, eta baserritarrei edota horretan hasi nahi dutenei laguntzea. Lotura zuzena dauka, nire ustez, adibidez, trantsizio energetikoarekin, eta horri ere erreparatu behar diogu; zer jaten dugun eta zer energia kontsumo duen elikagai horrek ekoizpenak. Zentzu horretan, urrats eta apustu potente bat da.

Udaleko zinegotzi ere bazaitugu. Udalak babes eman dio proiektuari. Zein izan da arrazoi nagusia?

Iraetan 25 hektarea lur publiko ditu Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak, Visesak. Udalak eremu horren inguruan elikadura burujabetzarekin eta tokiko ekoizpenarekin lotuta zerbait egitea aspaldidanik buruan zeukan zerbait da. Zentzu horretan, Amillubi proiektua Udalak buruan zebilkien ideien bide beretik doa, eta gainera alboko lurra dira. Lankidetzaz publiko-komunitarioa gauzatzen da Udalaren eta Biolurren arteko hitzarmenaren bidez. Herrigintza mota bat dela uste dut, gaiak dakiten eragileek ekin eta Udalak ekintza horiek sustengatu eta laguntzea; batez ere Udala iristen ez den esparruetan. Kasu honetan, Udalak babes ekonomikoa ematen du eta Biolurrek diru hau erabiliko du proiektua dinamizatzeko eta herrian agroekologiarekin lotutako ekintzak egiteko.

Zertan uste duzu eragingo duela eskualde mailan?

Oraindik dena zehaztu gabe baldin badago ere, sozioekonomia ikuspegitik emango dion onura, adibidez, izan daiteke nekazaritza munduan sartzekotan dabiltzanei aukera eskaintzea aurreneko pausuak ematen. Hasieretan inbertsio handiak egin behar izaten dira eta askotan ez baita erraza suertatzen. Jada badabiltzanentzat ere babes nahiz aholkularitza figura izan dezake, besteak beste, gauza berriak probatzeko aukera eskainiz. Merkataritza ikuspegitik ere, Amillubin ekoizten diren produktuak bertako dendatan edukitzea nik uste interesagarria dela. Nekazaritza ekologikoaren nolabaiteko zonaldeko bilgunea edo erreferentzia ere izan daiteke.



ANE ARANBURU. ERTXINEKO

Talde eragileko kide zara eta badakigu azken aldian gogor ari zaretela lanean, baina aldi berean gustura, ezta? Lana bai, baina ilusioa ere sumatzen da proiektu honen inguruan. Duela ia hamar urte Aizarnan oilategiaren proiektua abiatu genuenean egin ginen Biolurreko kide. Abeltzaintzari lotutako gure proiektua martxan jartzen, lurrak eta oilategia egokitzen, merkaturatzen, paperak zuzentzen... egia esan nahiko lanekin ibili gara hamar urte hauetan. Orain etxeko proiektua nahikoa egonkortzea lortu dugunean, eta gure eskualdean Amillubiren proiektua abiatzear zela jakin genuenean, gure aletxoak jartzea erabaki genuen. Amillubiko taldera batu ginen, beste nekazari eta herritar batzuekin batera.

“ILUSIOA SUMATZEN DA PROIEKTU HONEN INGURUAN”

Zestoa edo bailara mailan proiektuak zertan eragingo duela uste duzu?

Alde batetik, herritar kontsumitzaile gisara onurak ekarriko dizkigula uste dut, gertuko elikadura sistema indartzen lagunduko duelako. Bestetik, proiektua sektorearentzako pizgarri izan daitekeela iruditzen zait. Amillubin garatuko diren proiektuak oraindik gorpuzteko daude, baina herrian edo eskualde mailan lehen sektorean trebatu nahi dutenei lagun diezaieke Amillubik. Horrez gain, Biolurren sarean gauden nekazari eta abeltzainoi aukerak eskaini diezazkiguke: okinak, adibidez, badakit gariarekin esperimentatzeko gogoz daudela. Erosketa izango da orain lortu beharreko helburua, eta horrekin batera, eremu honetan garatuko diren proiektuak gorpuzten joatea epe ertainera begira. Luzera begira jarrita, berriz, Iparraldeko Lurzaindia bezalako egitura bat Hegoaldean abian jartzea ekar lezake hemen abiatuko denak, amesten hasita.

Zuek Ertxineko arrautzen proiektua duzue aspalditik martxan. Horrelako ekoizleentzat zertan eragingo duela uste duzu?

Ekoizle txikiarentzako proiektuak behar ditugu eta erakundeak gehiago ikusten ditugu instalazio handiak dituztenei begira. Ekoizle txikiok ere baditugu beharrak, baina askotan baliabideak falta zaizkigu, nork bere ustialeketan behar guztiei erantzuteko. Badakit Amillubik ez dituela behar guztiak aseko, baina taldeetatik jasotako bati edo besteri irtenbidea ematen bazaio, hori gehiago. Ekoizle txikion sareak zaindu behar ditugu eta ahal dugun neurrian elkar laguntzen eta indartzen gaituzten proiektuen alde lan egin, bakoitzak bere momentutik eta ahal duenetik.



argazkia: Dani Blanco/ARGIA-CC-BY-SA



Proiektuaren helburu nagusia Amilibia baserria eta bere lurrak ondasun kolektibo bilakatzea da, eta horren bitartez herritarrek bertakoak eta osasuntsuak diren elikagaiak eskuratzea, nekazariak lurrak modu duinean lantzeko aukera izatea, lurra espekulaziotik zein artifizializaziotik babestea eta lehen sektorea eta elikadura sistema indartzea. Euskal Herrian nekazaritza herrikoi eta iraunkorra eraikitzen ere parte hartu nahi du, Ipar Euskal Herriko Lurzaindiaren lorratzei jarraituta.

Kokapen estrategikoa

Amillubiko kideen esanetan, leku estrategikoan daude kokatuta Amilibia baserria eta bere lurrak. Izan ere, baserria Urola ibaiak Iraeta parean duen meandro naturalean baitago. Meandroan egoteak krisi klimatikoaren garaioan ura eskura izatea bermatzen du eta lurraren emankortasuna indartzen. Horregatik dira lur hauek baratzegintzarako, frutagintzarako eta lurraren laborantzarako egokiak.

Gainera, lurrak entitate-publikoaren jabetza duten 26 hektareako nekazaritza lur gisa kalifikatuta dauden eremu zabal baten alboan daude, eta honek etorkizunera begira proiektua hedatzeko aukera eskaintzen du.

Azkenik, logistika antolatzeko eta elikagaiak banatzeko ere leku egokian dago, bai Gipuzkoako kostaldeari begira, bai eta barrualdeko eskualdeei begira ere.

Diru-ekarpenak egiteko hainbat bide

Amilibia baserria konpondu eta bere lurrak modu kolektiboan erosteko, 390.000 euro behar dituzte. Hainbat bitarteko prestatu dituzte horretarako eta www.amillubi.eus webgunean oso argi azaltzean dira. Esate baterako, Coop57 Fundazioaren lankidetzari esker, interneten euskarri berezia prestatu dute crowdfunding diru-ekarpen kanpaina egiteko honako helbidean: <https://amillubi.coop57.coop/>. Honen bidez 150.000 euro bildu nahi ditu Biolurrek, baserria erosteko lehen ordainketak egin ahal izateko.

Horrez gain, beste aukera batzuk ere badaude proiektua diruz laguntzeko; bono-laguntza formatuko bitartekoak prestatu dituzte ekarpenak jasotzeko eta emandako kopuruaren arabera koadernoak, orri-markatzaileak, edo Pott Keramikako lagunek eskuz egindako platerak jasotzen dira ordainetan. Errifak ere jarriko dituzte salgai eta Biolurreko ekoizle sarearekin lankidetzan, beraien produktuak erostean Amillubi proiektuari laguntza adierazteko pegatinak ere diseinatu dituzte.

jone bergara

“GUREZTAT AMILLUBI
ALTXORRA IZANGO DA,
BERTATIK BERTARA IZANGO
BAITITUGU PRODUKTU
FRESKOAK”



IGOR ODRIOZOLA ETA TINA ELOVIKOVA

Atristain baserriaren kasuan, gehienbat erlezaintza eta fruitugintza lantzen ditugu. Nekazaritza ekologikoan ziurtatuta gaude eta Biolur-eko bazkideak gara. Biolur-en barruan Amillubiko proiektuarekin bat egiten dugu. Egitasmoak duen alderdirik garrantzitsuena, beharbada, lurraren babes delarik iruditzen zaigu. Gelditzen zaigun apurra mantendu beharra dago. Amillubiko lurrez gain, Iraetako erribera edo Sabe osoa babesteko abiapuntua izan daiteke. Nekazaritzan hasi garen gehienon arazo handienetako bat izan da lur egoki nahikorik ez izatea. Gure kasuan, lursailak auzo herrietan sakabanatuta edukitzea ekarri du eta horrek asko zailtzen du lana. Bestalde, ez du edozein lurrek balio eta Iraetakoak egokiak dira (ordeka, emankorra, eguzkitsua, hezea...). Nekazari berrien ezarpenaz gain, beste hainbat proiektu kolektibo garatzeko ere balio lezake: partekatzen dugun makineria eta materialen biltegi, trebakuntzarako, landaketa kolektiboak egiteko, beste baserrietan erabiliko diren landareak ereiteko...



PIEL PERURËNA ETA MAIA OSSA. TXARA ARROBEA

Sartu berriak gara Biolur elkartearen. Orain artean geure proiektua martxa jartzen aritu gara. Arrobean eguneroko elikagaiak eskura izateko zegoen hutsuneari erantzun modura sortu genuen Txara proiektua. Elkarteko gunea izatea eta elikaduraren inguruan kontzientzia lantzea ere baditu helburu.

Dendara elikagaiak ekarriko dizkiguten ekoizleak falta zaizkigu. Inguruko barazki-saltzaileek beraien kontsumo talde, azoka eta zirkuitu finkoak dituzte. Guretzat Amillubi altxorra izango da zentzu horretan, bertatik bertara izango baititugu produktu freskoak eta gure filosofiarekin bat egiten dutenak; eta, gainera, elikagaien zuzeneko informazioa izango dugu. Guretzat aurrerapauso garrantzitsua da. Uste dugu proiektuak lehen sektorean saretzen eta formatzen ere lagunduko duela. Transmisio hori ematea oso garrantzitsua da galtzen ari den sektore honetan. Alde horregatik ere oso positiboa izango da.

Jon Maia:

Aldaketa historikoeak bere giroa behar dute eta giro hori eraiki egin behar da



Disko berriaren azken abestia aitzakitzat hartuta, Jon Maiarekin solasaldia antolatu zuen Euskara Foroak. Azaroaren 28an Alonderon. Luze eta zabal jaso ditugu bere hitzak, euskal kantu zaharretik gaurdaino, Euskal Herria B-
rainoko euskal komunitatearen ibilibidea.

Bereterretxetarren kantua du Jon Maiaren lanak abiapuntua, euskarazko kantarik zaharrena, 600 urteko kantua 1400. urte inguruan sortua. Euskaldunen leinuen arteko liskar bat kontatzen du. Baina Maiari ez zaio kontatzen zuena inporta, ezagutzen dugun euskal kantu zaharrena eta oroitarria daukan kanta bakarra da, euskal kantu zaharrenaren oroitarria hori da inporta zitzaiona. Kantu horretan zegoen "esentzia". Kantu hori norbaitek idatzi zuen Zuberoko borda batean. Nola da posible 1400 urte inguruan Zuberoko bordan norbaitek erditutako doinu eta istorio horrek 600 urtetan zehar bizirik irautea Spotifyren, Youtube, Tik Tok eta Instagram garairaino? Nola da posible hori gertatzea? Sekula idatzia aurkitu gabe? 1890 aldera argitaratutako liburu bat da kantu honen aurreneko testigantza idatzia. Eta urte luze horietan Nafarroako erresuma galdu genuen, Errepublikak frantsesa izan genuen, munduko gerrak, diktadura

frankista, Gernika, geroztik euskara baztertze egin diren legedi guztiak, politika guztiak, euskarak inolako presentziarik ez duen gaur eguneko plataforma guztiak, zatiketa administratiboa eta gainera bertakoen %15ek bakarrik hitz egiten duen hizkuntza erabilita, nola da posible ekosistema horretan kantu txiki honek gaur arteko bidaia egin ahal izatea?

Hori formulatu zuenean konturatu zen jada bazuela diskoaren kontzeptua: Kantu horren bidaiari gordeta dago Euskal Herriaren existentziaren eta biziraupenaren sekretua. Miraria da kantu horrek bizirik iraun izana. Baina aldi berean, ez da miraria: guk egin dugu, gure aurreko belaunaldi guztiak egindako kateak ekarri du bizirik kantu hori eta, kantu hori esaten dudanean, metafora bat ari naiz erabiltzen. Kantua esaten dudanean herria ari naiz esaten, gure identitatea, gure hizkuntza. Oso txikia gara, hiztun oso gutxi gara, baina oso handia den zerbaiten parte gara. Hizkuntza gehienak baino handiagoa den historia baten parte gara, eta bestelako identitate eta hizkuntza asko, gu baino askoz handiago direnak, kantitatez edo itxuraz, horiena baino askoz handiagoa da gure historia.

Ardatza horrek izan behar zuen, transmisioa eta etengabeko eraldaketa. Hain zuzen ere etengabe transformazioan egon garelako, ez gara fosilak, etengabe bizi dugun mundualdira egokitzen asmatu dugulako, ez gara desagertu. Dinosaurioak, esaterako, desagertu egin ziren klima aldaketara egokitzen asmatu ez zutelako eta gauza bera gertatu zaie hizkuntza dinosaurio askori, latinari adibidez.

Solasaldian, Maiak aitortu zuen beste Euskal Herri bat aldarrikatzen hasi zenean, kasik berak bakarrik hitz egiten zuela gai hauetaz eta orain gehiago direla, baina diskurtsoarekin kontuz ibili behar dela: oso erreza da diskurtso "progre" bat izatea. Aniztasuna diogu, bai, baina denok ez gara berdinak, guk zaindu behar dugun gure bereiztasuna daukagu. Gure misioa da partikularidade horrek iraun dezan, mendeetan guranaino iritsi den bezala, ondorengoengana ere iritsi dadin. Partikularidade hori erasotua izan da historikoki, bere heriotza bilatu izan da, horregatik, denok gara berdinak, baina gu defizit historiko batetik gatoz eta gustatzen zait hori ere azpimarratzea.

Solasaldira gerturatu zirenei burua galderaz bete zien jarraian Maiak: Euskal Herria esaten dugunean, zer esaten dugu? Badakigu Euskal Herrian zenbat errealitate dauden? Ezagutzen ditugu? Oinarri horretatik diseinatzen ditugu gure estrategiak? Gure hizkuntza zabaldu eta hedatzeko estrategia?



Zer eraiki dugu euskaldunon kontzientzietan Euskal Herri gisa? Euskal Herria esaten dugunean, pentsatzen dugu Gueñeseko Euskal Herriari buruz? Sopuerta, Romo, Tuter, Baionako auzo periferikoak, Barakaldoko Llano auzoa, Lutxana, Sestaori buruz? edo ari gara pentsatzen Orio, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, baserritarrak, Aralar, Urbasa, perretxiko-zaleak, bertso-saioak, txikiteoa, Kontxa, Guggenheim... Benetan ari gara 400.000 hego amerikar, arabiar, Ekialdeko Europako horietaz? Horiek gu bezain euskal herritarrak dira, hemen bizi, lana egin eta bere zergak ordaintzen dituzten momentutik.

Beste Euskal Herri hori agertzen da gure kantuetan? gure umeei kontatzen dizkiegun ipuinetan? gure pelikuletan? gure nobelatan? Bertsotan? Zerbait inauguratzen da aipatu ditudan leku horietan? Leku itsusiak, industrializazioak degradatuak, sozialki desestruturatuak, auzo pobreak, Francoren garaiko "Casas baratas", "Mundo mejor", "Manchurria" izeneko afrikar, errumaniar eta arabiarrez beteta dauden auzo horietan? Dozenaka, milaka euskal herritar, ehunka auzo eta herri horrelakoak.

Jende horrek ez du entzun ere egin Durangoko Azoka existitzen denik, Eusko Label produktuak existitzen direnik, Sorioneku eskua aurkitu zenik, foroak, Amaiur, entzun ere ez!

Euskal Herri hori guztia, "gu" ez beste guztia, guretzat ezezaguna den hori, euskal herritarren %80 edo bizi da gure Euskal Herri horretatik kanpo. Hango eskola batera joaten zara eta 250 umetan igual daude 65 nazionalitate eta etxean euskaraz egiten duten bakarrak euskaraz ikasi duen jendea da, ez gu bezala euskaraz inkorporatua ekarri dugunak, eta 4 edo 5 guraso dira.

Estrategia aldatzeko premia aldarrikatu zuen jarraian: Baina gu legitimatuta sentitzen gara Euskal Herriko bandera eramateko, gu baikara Bereterretxeren oinordeko zuzenak, euskaraz bizi garenak, euskal diskoak erosi, Berria sortu eta bertso saioak antolatzen ditugunak. Baina gu gutxi gara eta gutxietsiak gara, gu gara beharra dutenak, gu gara agoniaren muga bizi garenak, gu gara baliabidez pobreak garenak, gu gara kantitatez gutxi garenak. Beraiek asko dira, eta baliabide dezente dituzte; guk ez daukagu Netflix, ez daukagu PlayStation, ezta ere Adidas, Vans, eta Nike euskaraz publizitatea egiten, ez daukagu 300 irrati euskaraz, ez 80 aldizkari euskaraz, gu gara gehiago izan gaitezten gure zabalkundea bilatu, probokatu eta erraztu behar dugunak. Gure esentzia galdu gabe, baina euskal identitate berri horiek barneratuz, aurrerantzean ere asmatu beharko dugu egokitzen bizi garen mundualdi eta errealtatera. Erromatarrak etorri zirenean bezala, inperio erraldoi bat, hizkuntza erraldoi batekin, mende batzuetan hemen egon ziren, baina dirudienek, jakin genuen hori ere gainditzen eta bizirik ateratzen. Nola

egingo dugu oraingoan? Utziko dugu ea zorteak laguntzen digun? Edo egingo ditugu gure estrategiak hemengo gure Euskal Herri besterik beste horrek existituko ez balu bezala?

Euskal Herria B horren beharra dugula azpimarratu zuen: Nik Euskal Herri hau sartu behar nien nire diskoan eta saiatu naiz nire lana ahalik eta potenteena izan dadin Euskal Herri horren berri ahalik eta modu indartsuenean emateko. Nire diskoa erosi dute

milaka euskaldun horiek, Euskal Herria B horretaraino eramango ditut eta horretarako Bereterretxetik hasiko naiz, badakidalako horrek erakarriko dituela, eta diskoaren bidaian jendea Euskal Herria B-ra iritsiko da. Nire asmoa da Euskal Herria B hori barneratzea euskal identitatearen erdigunera. Enborreraino, narrazio ofizialera, eta ez adar bezala utzi.

Euskal Herria B hori ere gure parte da, gustatu edo ez gustatu, eta errealtate horrekin kontatu behar dugu euskara normalizatu nahi badugu, erabakitze eskubidea iritsi dadin abertzalegoaren mugetatik haratago, eta onartua izan dadin nahi badugu, euskarak jauzi bat eman dezan legez, eskakizunez, jende horrengana hurbildu beharko gara eta haiek guregana eta aurreiritziak eta fosildutako gure hainbat pentsamendu desmuntatu.

Gauza asko egiten ditu Jon Maiak eta ondo ezagutzen ditu berak Euskal Herria A eta B bezala sailkatzen dituenak. Horrek diagnostiko globala egiteko aukera eman dio: Aldaketa historikoen bere giroa behar dute eta giro hori eraiki egin behar da. Bulego batean lau gauza erabakitzen direlako jendeak ez ditu sentituko, giroa sortu behar da, gizartea prestatu, eta emozio, zirrara eta konexioak sortu behar dira, gero estrategiek funtziona dezaten eta prozesu teknikoak benetakoak izan daitezten eta sentitu daitezten. Hori da nire ahalegina.

Euskaraz Foroa
eskabutako erreportajea



ALTUNA Y URIA

Loiola
Espacios para vivir

SALGAI GARAJEAK ETA LOKALAK

EGOKITUTAKO AZKEN BI ETXEBIZITZA
PREZIO EZINHOBEAN

ANIMATU ETA
DEITU EZAZU



REZOLA BERRIA

900 102 220

www.rezolaberria.com

PROGRAMA

ABENDUA

22 OSTIRALA
20:00etan Gabon abesbatzaren entsegu orokorra, kultur etxean.

21-26 BITARTEAN
Antton Ao Povo taldeak antolatuta, Erdikaleko

zozketa berezia mariskada erraldoiarekin.

Zoroperitan 14:00etan aterako da zenbakia (28an eguerdiko 14:00etan bukatuko da otarra jasotzeko epea).

24 IGANDEA
Arroabeen 9:00tan plazan elkartuko dira Gabon kantekin baserri eta kaleak alaitzeko. 12:00etan Arroagoiko Matrakak parera iritsiko da Olentzero. 13:00etan arkupetan banda eta Gabon Abesbatzaren kontzertua. 17:00etan aterako da abesbatza kantuan San Juan egoitzatik. 17:30 inguruan Mari Domingi eta Olentzero Lauiturrieta ingurura gerturatuko dira. Baserritarrez jantzi eta kriseiluak eramateko deia egin dute antolatzaileek. Gabon kanta abestuko dira plazara bidean.

25 ASTELEHENA
Mus txapelketa eta Bingoa Gaztetxean.

26 ASTEARTEA
Zoroperi eguna. 10:00. Idiakaitz txistulari taldearen diana. XXXII. Barazki eta fruta lehiaketa. Urolako XXIV. Ezti lehiaketa. Erlezaintzari buruzko beste ekitaldi batzuk. XXIII. Zestoako Sagardo lehiaketa. Horiez gain, Zestoako eta kanpoko artisauak eta salmenta-postu franko izango dira. Herriko hainbat belaunalditako trikitilariak. Idiakaitz txistulari taldearen kalejira. 12:45. Barazki eta Fruta, Ezti, eta Sagardo lehiaketarako sari banaketak. Ondoren, Sagardoa dastatzea, plazan. 14:30. Baba jana Gaztetxean. Ondoren, gaztetxearen aldeko argazkia. 17:00. Erniarraitzek antolatuta, bertso-poteoa, tabernaz taberna, Naia Arrizabalaga eta Aitor Mendiluzerekin. 17:30. "Bizi-bizi zirkua" umeentzako ikuskizuna, Kiki Koko eta Mokorekin, Kultur Etxean. 19:30. Obaneuke erromeri taldea arkupetan, afalordura arte. 22:00. Obaneuke arkupetan eta Dj m&m gaztetxean.

28-29 ASTEBURUA
Neguko arropa eta manta bilketa Gaztetxean.

29 OSTIRALA
Urteko azken ostirala Zestoako Sarek deituta. Elkarretaratzea Euskal preso, iheslari eta deportatuen alde, 19:30ean plazan.

30 LARUNBATA
Arroabeko Olentzero taldeko haur eta gurasoek San Juan eta Gisasola egoitzetara bisita egingo dute bertakoak Gabon kantekin alaitu eta egoiliarrei opariak banatzera.

31 IGANDEA
San Silbestre lasterketa. 17:00etan hamar urtera arteko haurren txanda. Plazan hasi eta plazan amaitu. Ondoren, 11 eta 15 urte bitarteko gazteek 1.000 metro egingo dituzte. 16 urtetik gorakoek 3.000 metroko ibilbidea. Parte hartzeko, egunean bertan eman beharko da izena, 16:00etatik 16:45era bitartean, plazan. Irabazle eta partaindeentzako opariak zozkatuko dira.

URTARRILA

03 ASTEAZKENA
Bakarriketak gaztetxean Maria Blanco, Julen Portillo eta Aimar Sorazurekin.

05 OSTEGUNA
18:10ean Erregeen kabalgata autobusez iritsiko da Arroabeko Olaeta kalera eta tanbor hotsekin plazaraino gerturatuko dira. 18:30ean Akoatik behera Zestoara iritsiko dira.

09 ASTEARTEA
"Kontaidazu ipuin bat". Liburutegian, 17:30ean.

SANTAINESAK IRAETAN

20 LARUNBATA
Mozorrota etorri festak alaitzeko! Arratsaldean puzgarriak. Haur jaioberriei ongi etorria. Iraetako Trena eta txokolatada.

21 IGANDEA
Santa Ines eguna. 11:00. Txupinazoa. Ondoren auzoko jubilatuentzako hamaiketako Gure Ordeka elkartearen. 12:00. gaztetxoaren pilota partidak. 12:30. Iraetako pilota txapelketako finala. 12:30. Santa Ines eguneko meza. 17:30. Urrezko aizkora eta Errota harria jaialdia.

26 OSTIRALA
XXXIII. Mus txapelketa Bekoetxen.

27 LARUNBATA
13:00. Pintxo lehiaketa Gure Ordeka elkartearen. 14:00. pintxo bazkaria Gure Ordeka elkartearen. 19:30. Triki poteoa, frontoitik hasita. 21:00. Afari herrikoia, garagardo afaria (saltxitxak, txerri kostilla, aukera beganoa eta postrea. Zerbeza nahi adina). Ondoren, Dj Olber. Zestoarrek bide berde zerbitzua izango dute etxera itzultzeko.

GAZTELEKUKO ABENDUA ETA URTARRILEKO ESKAINTZA

Aurrez izena emateko gaztelekuko WhatsApp zenbakia: 688 684 029

27 Asteazkena: Hortzetako pastaren tailerra, Mari Artano eta Goiatz Aristirekin, Ekain Guraso Elkarrekin antolatuta. *Barreterapia Alonderon, Manex Beristainekin. LH3: 15:30etatik 17:30etara. DBH: 18:00etatik 20:00etara.

28 Osteguna: Txuri-Urdinera irteera, LH3 eta DBHkoentzat (arratsaldean).

29 Ostirala: sukaldaritza-tailerra eta afari-merienda, DBHkoentzat.

2 Asteartea: sukaldaritza-tailerra: gailetak, LH3koentzat.

3 Asteazkena: dantza urbanoak, kiroldegian. LH3: 16:30etatik 18:00etara. DBH: 18:00etatik 19:30etara.

4 Osteguna: Lego-lehiaketa, gaztelekuan, LH3 eta DBHkoentzat (arratsaldean).

11 Osteguna: Mahai-tenis txapelketa 3. zikloa

12 Ostirala: Mahai-tenis txapelketa DBH

13 Larunbata: Sukaldaritza brownie-ak DBH

16 Asteartea: San Blas opilak 1. eta 2. zikloa.

18 Osteguna: Slime 3. zikloa.

25 Osteguna: Sukaldaritza brownie-ak 3. zikloa.

26-27: Inauterietako prestaketak.

HAU RENTZAT JOLASAK,

Barbantxo Aisialdi Taldearekin: Urtarrilak 12 eta 26: Aizarnan eta Zestoako herrigunean. Urtarrilak 19: Arroabeen Urtarrilak 10 eta 24: HH4-HH5 herri-gunean

BARBANTXOREN SAIOETAN PARTE HARTZEKO AURREZ IZENA EMAN BEHAR DA GAZTELEKUKO WHATSAPP ZENBAKIAN (688 684 029).

- Eraikuntza eta obra zibila.
- Portalen berritze eta igogailuen ezarpena.
- Lokal komertzialen erreformak.



- Eraikinen birgaitze energetikoa.
- Eraikinen mantentze eta konponketa lanak.
- Fatxada bentilatua eta SATE.



Zorionak eta urte berri on!



erreabilitazioak
RENOVALAN

RENOVALAN ZESTOA S.L.

943 443 001 renovalan.com